# La voz de la Tierra
## Lurraren ahotsa

**Camilla Tilling**
Soprano/Sopranoa
**Perry So**
Director/Zuzendaria

TEMPORADA
DENBORALDIA
23-24

Orquesta Sinfónica de Navarra
Nafarroako Orkestra Sinfonikoa



FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA

ORQUESTA
SINFÓNICA
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ORKESTRA
SINFONIKOA


FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA
DANZA | DANTZA
Malandain Ballet Biarritz
Las Estaciones
Sábado 9 marzo
Martxoak 9 larunbata
Hora | Ordu 19:30
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
FUNDACIÓN CAJANAVARRA
Fundación "la Caixa"
MONDRAGON
HUMANITY AT WORK
Finanzas
Industria
Distribución
Conocimiento
El Corte Inglés
AUTOPISTAS DE NAVARRA

© Fotografía | Argazkia: Maria Östlin



**Camilla Tilling**
Soprano/Sopranoa



**Perry So**
Director/Zuzendaria

Primera parte / Lehen zatia

## Vicent Egea (1961)

*Climate Change* [18']

**ESTRENO ABSOLUTO**
Obra por encargo de
Fundación Baluarte Fundazioa

Segunda parte / Bigarren zatia

## Gustav Mahler (1860 - 1911)

*Sinfonía n. 4 en Sol Mayor* [54']

I. Bedächtig; nicht eilen
II. In gemächlicher Bewegung; ohne Hast
III. Ruhevoll
IV. Sehr behaglich

Notas|Notak

Tenemos la obligación de cuidar la Naturaleza, de ser sensibles a su sufrimiento y de hacer todo lo posible para salvar a la Tierra, porque somos los principales responsables de su dolor. **Vicent Egea** denuncia este drama climático como mejor sabe, a través de su lenguaje musical directo y expresivo, que, como él mismo explica, *"pretende ofrecer elementos de referencia sonora, temática, tímbrica y formal"*, que consigan la comprensión y el disfrute en los oyentes.

Para el encargo de Fundación Baluarte ha compuesto *Climate Change*, partitura que nuestra orquesta estrena hoy y a través de la cual hace un *"llamamiento a la actuación por el maltrato que nuestro planeta está sufriendo debido especialmente a algunas actividades del hombre"*. Egea expresa su preocupación por la situación actual que, en sus palabras, *"requiere una acción climática urgente a nivel mundial para evitar los efectos dramáticos derivados del calentamiento global"*.

La composición sigue una forma libre con distintas secciones contrastantes en torno a focos tonales y en ella, Egea recurre *"a diferentes modos como forma básica de organización para crear series melódicas. De estos modos se extrae el material armónico, a través de poliacordes de distinta densidad, para cohesionar lo horizontal o melódico con lo vertical o armónico"*. El equilibrio entre texturas y sonoridades, sencillas o complejas, presenta un *"constante diálogo de tensiones y relajaciones"*. Muy interesante es la relación de la partitura de Vicent Egea con las matemáticas; explica el compositor que utiliza *"subjetivamente la serie de Fibonacci como sistema constructivo en la organización interválica de diferentes motivos de esencia melódica, así como para algunos elementos métricos y rítmicos"*. La convivencia de elementos compositivos históricos como el contrapunto con procedimientos actuales, o la combinación de *"pasajes de notación determinada con elementos aleatorios se pueden entender como una referencia simbólica a la incertidumbre y falta de control de la evolución y desarrollo de algunos eventos"*. Como explica Egea, el concepto de *"variación continua"* de los elementos compositivos que utiliza en la obra, se pueden interpretar como metáfora del *"continuo cambio climático"*.

La Naturaleza que inspiró a **Gustav Mahler** representó ese rincón idílico que la *vieja* Viena vivía en sus últimos años de felicidad, antes de la dramática irrupción de la Guerra. Esa Naturaleza forma parte de la vida, con alegría, inocencia, sentido del humor, pero también con momentos dramáticos y sombras que no siempre se disipan del todo. Como expresó **Bruno Walter** refiriéndose a las sinfonías de Mahler, en ellas encontramos *"la piedad, el anhelo, el amor, la despedida, la noche, el mundo de los espíritus, el cuento de los mercenarios, la alegría de la juventud, la infancia, las bromas…"* que se encuentran en *Das knaben Wunderhorn*, la colección de poemas que tanto inspiró al compositor. En la Cuarta Sinfonía, terminada durante el verano de 1900 en su casa de vacaciones de Carintia, Mahler ahonda en el carácter pastoral, inocente y delicado, del último de los poemas del citado ciclo, *Das himmlische Leben [La vida celeste]*, que convertirá en Lied en el último movimiento de la obra.

Saliendo del camino de la música descriptiva de sus sinfonías precedentes, Mahler manifestó su defensa de la forma clásica y de la tradición mozartiana, preocupado por distanciarse de **Strauss**, como escribe **Ross**, deseoso de ser visto *"como un músico puro que se mueve en un ámbito fuera del tiempo, el espacio y las formas de las apariencias individuales"*. Las campanillas que se escuchan en los primeros compases anuncian la despreocupación y la alegría de la partitura, muy cercana a la gracia clásica de **Mozart**, a su equilibrio, pero también a desarrollos increíbles de material temático que va apareciendo y completando con destellos tímbricos imaginativos y extraordinariamente coloridos.

El segundo movimiento es una especie de Scherzo en el que el violín toma el protagonismo con los sutiles y gráciles acompañamientos orquestales. Salvando momentos en que la sombra de la Muerte se asoma con presencia de las trompas, el movimiento continúa caminando hacia el Paraíso. Meditación y serenidad entonan un maravilloso canto en el Andante *[Ruhevoll]* entre tono mayor y menor, con el tema del oboe y las sombras de las cuerdas más graves, y una transición amable y cálida, con los cantos de las aves y un romanticismo espléndido, hacia el Lied *celestial*. Para la cantante que aborde el último movimiento, Mahler dejó escrita la siguiente recomendación: *"Voz cantante con expresión alegre infantil: ¡absolutamente sin parodia!"*. La alegría del Paraíso como lo descubre un niño, con la inocencia de los ángeles que amasan el pan ante la mirada de San Pedro, donde todos bailan, cantan y comen ricos manjares. Música para ser feliz, para devolver a la Naturaleza y a la Humanidad la paz y el equilibrio que hoy más que nunca necesitan.

**Mar García**

Natura zaintzeko beharra dugu, sentibera izateko beharra haren sufrimenduarekiko, eta ahalik eta ahaleginik handiena egin behar dugu Lurra salbatzeko, haren minaren erantzule nagusiak baikara. Hobekien dakien bezala salatu du **Vicent Egeak** egungo drama klimatikoa, bere hizkuntza musikal zuzeneko eta adierazkorraren bidez, eta hark berak azaldu duenez, *"soinu, gai, tinbre eta forma arloko erreferentziak eskaini nahi ditu"*, entzuleen ulerkuntza eta gozamena lortze aldera.

Baluarte Fundazioaren enkargurako, *Climate Change* konposatu du, hau da, gure orkestrak gaur estreinatuko duen partitura, haren bidez deialdia egin nahi du *"bereziki gizakiaren jarduera batzuen ondorioz gure planeta pairatzen ari den tratu txarren kontra ekiteko"*. Egeak bere kezka agertu du egungo egoeragatik. Haren hitzetan, *"premiazko klima-ekintza behar da mundu osoan, berotze globalak eragindako ondorio dramatikoak eragozteko"*.

Konposizioak forma libreari jarraitu dio eta hainbat atal kontraste-eragile ditu tonu-fokuen inguruan; bada, hartan, Egeak *"hainbat modu erabili ditu oinarrizko antolaketa-forma gisa melodia-serieak sortzeko. Modu horietatik material harmonikoa ateratzen da, dentsitate handi-txikiko poliakordeen bidez, horizontala edo melodikoa bertikalarekin edo harmonikoarekin kohesionatzeko"*. Testuren eta sonoritate soil eta konplexuen arteko orekak *"tentsioen eta une lasaien arteko solasaldi etengabea dakar"*. Oso interesgarria da Vicent Egearen partiturak matematikarekin duen lotura; konpositoreak azaldu duenez, *"Fibonacci seriea erabiltzen du subjektiboki eraikuntza-sistema gisa, funts melodikoko hainbat motiboren bitarte melodikoa antolatzeko, bai eta elementu metriko eta erritmiko batzuetarako ere"*. Batera ageri dira konposizio-elementu historikoak (hala nola, kontrapuntua) eta egungo prozedurak, edo *"notazio zehatzeko pasarteak ausazko elementuekin konbinatzen dira; ulertu daitekeenez, erreferentzia sinbolikoa egiten diote ziurgabetasunari, eta gertakari batzuen bilakaera eta garapenaren kontrol faltari"*. Egeak esan duen bezala, obran erabiltzen duen konposizio-elementuen etengabeko aldaketaren kontzeptua *"klima-aldaketa etengabearen"* metafora gisa interpretatu daiteke.

**Gustav Mahler** inspiratu zuen Naturak ederki irudikatu zuen Viena zaharrak bere azken zorion-urteetan bizi izandako txoko idiliko hura, Gerra dramatikoa piztu baino lehen. Natura hori bizitzaren parte da, bada poza, lainotasuna, umore-sena, baina era berean badira inoiz uxatzen ez diren une dramatikoak eta itzalak. **Bruno Walterrek** Mahlerren sinfoniez ari zela adierazi zuen bezala, haietan *"pietatea, irrika, maitasuna, azken agurra, gaua, espirituen mundua, mertzenarioen ipuina, gazteriaren alaitasuna, haurtzaroa, txantxak..."* ageri dira, eta halakoak konpositorea hainbestean inspiratu zuten *Das knaben Wunderhorn* izeneko olerki-bildumetan daude. Laugarren Sinfonian (1900eko udan Karintiako bere opor etxean bukatua), Mahlerrek sakontzen du aipatu ziklo horretako *Das himmlische Leben [Zeruko bizitza]* azken olerkiaren artzaintza giroko izaera tolesgabe eta delikatuan, harik eta lanaren azken mugimenduan hura Lied bihurtzeraino.

Aurreko sinfonien musika deskriptiboaren bidetik aterata, Mahler forma klasikoaren eta Mozarten tradizioaren alde agertu zen, **Straussengandik** urrundu nahian; izan ere, **Rossek** idatzi duen bezala, besteek bera musikari garbi bat bezala ikustea nahi baitzuen, denboraz, espazioaz eta itxura indibidualen formez kanpoko esparru batean mugitzen dena. Lehen konpasetan entzuten diren txilinek partituraren lasaitasuna eta poza iragartzen dute; oso hurbil dago **Mozarten** grazia klasikotik, haren orekatik, baina era berean, tinbre arloko distira irudimentsu eta arras koloretsuekin agertzen eta osatzen den material tematikoaren garapen sinestezinetatik hurbil.

Bigarren mugimendua Scherzo gisako bat da, zeinean biolina ardatza baita orkestraren akonpainamendu sotil eta arinekin. Heriotzaren itzala tronpen bidez agertzen den uneak gorabehera, mugimendua aurrera doa Paradisurantz. Meditazioak eta baretasunak kantu miresgarri bati heltzen diote Andanten *[Ruhevoll]* tonu maiorraren eta minorraren artean, oboeren gaiarekin eta hari baxuenen itzalekin; eta trantsizio atsegin eta beroa, hegaztien kantuen bidez, eta erromantizismo bikaina, Lied *zerutiarrerantz*. Azken mugimenduari ekiten dion abeslariarentzat, Mahlerrek gomendio hau utzi zuen idatzia: *"Abeslariaren ahotsari haurren adierazpen alaia eman behar zaio; parodiarik gabea erabat!"*. Horra Paradisuko alaitasuna, haur batek deskubritzen duen bezala, San Pedroren begiradaren aurrean ogia oratzen duten aingeruen xalotasunarekin, guztiek dantzatzen, abesten eta jaki goxoak jaten dituzten bitartean. Musika, zoriontsu izateko, eta Naturari eta Gizateriari egun inoiz baino gehiago behar dituzten bakea eta oreka itzultzeko.

Biografía | Biografia



© Fotografía | Argazkia: Maria Östlin

**Camilla Tilling** | Soprano/Sopranoa

El tono seductor y la musicalidad inquebrantable de su voz han asegurado a Camilla Tilling una posición como una de las cantantes favoritas de los directores, el público y la crítica a lo largo de una carrera de más de dos décadas. Ha tenido una presencia constante en los principales escenarios de ópera, conciertos y recitales del mundo y, al mismo tiempo, ha construido una impresionante discografía que incluye obras orquestales de Haydn con Bernard Haitink, Handel y Purcell con Emmanuelle Haïm, Grieg con Paavo Järvi, Brahms con Marek Janowski y Cherubini con Riccardo Muti, además de colecciones de recitales de Gluck, Mozart, Strauss, Schumann, Grieg y otros compositores.

Tilling colabora regularmente con los directores más importantes de la actualidad, incluyendo apariciones recientes con la Het Concertgebouw Orkest y la Orquesta Filarmónica de Los Ángeles bajo la dirección de Gustavo Dudamel; con Esa-Pekka Salonen y la Orquesta Filarmónica de Londres; con Gianandrea Noseda y la Orquesta Sinfónica Nacional de Washington; con Omer Meir Welber y la Orquesta Nacional de Francia; y con François-Xavier Roth con la Orquesta Sinfónica de Londres.

Bere ahotsaren tonu liluratzaileak eta musikaltasun tinkoak eraginik, Camilla Tilling zuzendarien, publikoaren eta kritikarien abeslaririk gogokoenetako bat izan da hogei urtetik gorako ibilbidean zehar. Etengabe aritu da kantuan mundu zabaleko opera, kontzertu eta errezitaldietan eta, aldi berean, diskografia izugarria ondu du, hamaika konpositoreren orkestra-lanak bilduta: Haydn, Bernard Haitink-ekin; Handel eta Purcell, Emmanuelle Haïmekin; Grieg, Paavo Järvi-rekin; Brahms, Marek Janowskirekin, eta Cherubini, Riccardo Mutirekin. Horrez gain, Gluck, Mozart, Strauss, Schumann, Grieg eta beste konpositore batzuen errezitaldi-bildumak ere bai.

Tilling aldizka aritzen da lankidetzan egungo zuzendaririk garrantzitsuenekin, barne direla azkenaldian egindako saioak Het Concertgebouw Orkest orkestrarekin eta Los Angelesko Orkestra Filarmonikoarekin, Gustavo Dudamelen zuzendaritzapean; Londresko Orkestra Filarmonikoarekin, Esa-Pekka Salonen-ek zuzendurik; Washingtongo Orkestra Sinfoniko Nazionalarekin, Gianandrea Nosedaren zuzendaritzapean; Frantziako Orkestra Nazionalarekin, Omer Meir Welberrek zuzendurik; eta Londresko Orkestra Sinfonikoarekin, François-Xavier Roth-ek zuzendurik.

OSN | NOS

**Concertino Invitado/ Kontzertino Gonbidatua**
Lauren Roth

**Ayuda de Concertino/ Kontzertinoa laguntzailea**
Anna Siwek

**Violines I/I Biolinak**
Daniel Menéndez *
Enrico Ragazzo
Malen Aranzábal
Nikola Takov
Aratz Uría
Iñaki Crespo ®
Catalina García-Mina
Fermín Aramendía ®
David Pérez
Clara Monzón ©
Inés De Madrazo
Kevin Merchán ©

**Violines II/II Biolinak**
Maite Ciriaco *
Anna Radomska *
Fermín Ansó
David Cabezón
Sergiu Ionescu
José Ignacio López ®
David Andreu
Elisabeth Webb ©
Lourdes González
Gabriela Rosas ©
Angelo Vieni
David Escudero ®

**Violas/Biolak**
Carolina Úriz *
Robert Pajewski **
José Ramón Rodríguez
Irantzu Sarriguren
Alicia Álvarez ®
Malgorzata Tkaczyk
Víctor Manuel Muñoz
Sara Mei ©
Ana Konstanze Gil ©
Jorge Gallardo ®

**Violonchelos/Biolontxeloak**
David Johnstone *
Tomasz Przylecki **
Dorota Pukownik
Carlos Frutuoso
Aritz Gómez
Luis Alejandro Castillo ©
Lara Vidal
Isabel Schlegel ©

**Contrabajos/Kontrabaxuak**
Daniel Morán *
Gian Luca Mangiarotti **
Xavier Boixader ®
Javier Echepare ©
Gorka Cobo ©

**Flautas/Txirulak**
Ander Erburu ®*
Ricardo González **
Laia Albinyana ®
Amaia Gómez ®

**Oboes/Oboeak**
Juan Manuel Crespo *
Jesús Ventura *
Leticia Camarasa ®

**Clarinetes/Klarineteak**
Elisa López *
Joao Paiva ®
Mikel Donazar ®

**Fagotes/Fagotak**
José Lozano *
Ferrán Tamarit *
Alberto Saez ®

**Trompas/Tronpak**
Julián Cano *
Jessica Rueda *
Aritz García de Albéniz
Marc Moragues

**Trompetas/Tronpetak**
José Manuel Pérez *
Carlos Gomis *
Ibai Izquierdo ®

**Trombones/Tronboiak**
Santiago Blanco *
Mikel Arkauz **
Héctor Prieto ®

**Arpa/Arpa**
Alicia Griffiths ®

**Timbales/Tinbalak**
Javier Odriozola

**Percusión/Perkusioa**
Javier Pelegrin ®
Santiago Pizana ®
Jaime Atristrain ®
Aingeru Otxotorena ®

* Solista/Bakarlaria
** Ayuda Solista/ Bakarlaria Laguntzailea
® Contratación temporal/ Aldi baterako kontratazioa
© Colaboración del alumnado del Centro Superior de Música del País Vasco-Musikene

Orquesta Sinfónica de Navarra
Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Calle Sandoval 6
31002 Pamplona-Iruña
948 229 217

www.orquestadenavarra.es
info@orquestadenavarra.es

OrquestaSinfonicaDeNavarra
@orquestanavarra
@orquestasinfonicadenavarra
youtube.com/OrquestaSinfonicadeNavarra

**Recibe las novedades de Fundación Baluarte y Orquesta Sinfónica de Navarra en tu Whatsapp.**
**Envía “alta” al +34 636 86 32 57**

FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA
ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA
NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA
Colabora: musikene
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
FUNDACIÓN CAJANAVARRA
Fundación "la Caixa"
AUTOPISTAS DE NAVARRA
El Corte Inglés
MONDRAGON HUMANITY AT WORK Finanzas Industria Distribución Conocimiento

Este programa se ha impreso utilizando papel reciclado
Eskuko programa hau paper birziklatuan inprimatu da

DL.NA 585-2015